

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Ehun ikastetxek baino gehiagok parte hartuko dute Hezkuntza Departamentuak bultzaturiko Osasun, Iraunkortasun eta Elkartasun sareetan

*Ikasturte honetan, beste hamabi ikastetxe gehitu zaizkie osasuna eta iraunkortasuna hobetu eta elkartasuna bultzatzeko proiektuak garatzea xede duten sare hauei*

Ostirala, 2018.eko urriak 19

Hezkuntza Departamentuak bultzaturiko osasunerako, iraunkortasunerako eta elkartasunerako [eskolen sareek](#) beste hamabi ikastetxe izanen dituzte partaide aurten. Horietako sei osasunerako eskolen sarean sartuko dira, eta gainerako seiak eskola iraunkorren sarean. Ikastetxe hauek kontuan harturik, dagoeneko Nafarroako 137 ikastetxek dihardute arlo horiei buruzko proiektuetan lanean, justizia soziala eta zuzentasuna, elikadura, mugikortasun osasungarria edo hondakinen nahiz ingurumen baliabideen kudeaketa bezalako edukiak txertatzeko asmoz.

Hauexek dira Osasunerako Eskolen Sareari gehitu zaizkion ikastetxeak: Sesmako Virgen de las Nieves HLHIP, Lizarra Ikastola, Sartagudako Nuestra Señora del Rosario HLHIP, Iruñeko Plaza de la Cruz BHI, Castejon DBHI eta Doneztebeko San Miguel IP. Eskol Iraunkorren Sareak, aurten, Corellako Alhama BHI, Iberoko Isterria HBI, Corellako Arte Eskola eta Diseinu Goi Eskola eta García Galdeano IP, El Molino HBI eta Iruñeko Doña Mayor HLHIP izanen ditu partaide.

Sare hauetan sartu diren ikastetxeek 500 euro inguruko dirulaguntza eta banakako zein taldekako formakuntzak jasoko dituzte proiektuak garatzeko. Halaber, ikastetxeei garatu beharreko jardueri buruzko aholkularitza eskainiko zaie. Osasunerako eskolen kasuan (hauei atxikita daude Eskola Seguruaren Sarea eta Eskola Sozioemozionalen Sarea), Osasun Departamentuaren eta Barneko zuzendaritza nagusiaren aholkularitza izanen dute, eskola solidarioek GKEena eta eskola iraunkorrek ingurumen enpresen laguntza izanen dute.

Eskola Sozioemozionalen Sareak 19 ikastetxe ditu, eskola osasungarrien sareak 56, eskola iraunkorrek 35, eskola solidarioek 16 eta eskola seguruek 17.